

# Indua koekin



D. MARTÍNEZ

nez, euskaldun irudi faltan, ez dago oraingo honetan euskaldunik liburuan. Tokiko ukituaren beharrik ere ez, agian, hondamendia eta gain-behera zein horiek eragiten dituzten ondoeza eta izua guztiz globalizatuta dauden honetan.

Honen aurretik azkeneko literatura lana zuen 2013ko 'Azken afaria' eleberria bete-betean jotzen zuen Euskal Herriko egoera politikoak. 2015eko ipuinetan, berriz, hondamendiak ez du data jakinik, ezta eremu geografiko zehatzik ere. Ipuinetatik kanpoko 2015. urtean ere ez.

### Zaharrak berri

«Jihadismoa, klima-aldaketa, sistema kapitalistaren krisia... Hondamendi giroan bizi gara. Iruditzen zaigu mundua desagertzera doala, beste bat sortzeko». Hori, baina, ez da nobedadea. «Sentsazio hori beti eduki du gure espezieak», konturatu zen, eta kristau tradizioaren arabera gaitz zuen, Adam eta Eva paradisuatik bota zituzten momentura. Gero etorri ziren izuriteak, gerra, XX. mendeko totalitarismoak, lehergailu atomikoa, 'mehatxu jihadista' delako hori...

Ez da ezer berrik, alegia, eguzkiaren azpian, Itun Zaharreko Ecclesiastesen idatzi zuten bezala. Izan ere, badu Bibliak presentzia liburuan: «Prailean herentzia, kristautasunak utzitako eragina». Esan behar da, dena den, eta esan zion Xabier Mendigurenek, honen aurretik ere urriak direla pozak Montoiaren liburuetan. Berak, hala ere, ez du bere burua pesimistatzak jotzen. «Ni idazle errealista naiz, mundua kontaktzen dut ikusten dudana bezala». Eta horrela ikusten badu, horrela kontatzen du. Horrela ari da alegia mundua kontaktzen eta kantatzen azken hiru hamarkadatan. Horrelakoa da 'Montoiaren mundu mireagarria'; ('Hondamendia' irakurri bitartean entzuteko kanta oso aproposak dituen diskoa).

## Fermin Etxegoien «hordago batekin» sartu da gaztetxoentzako literaturan

:: FELIX IBARGUTXI

**DONOSTIA.** 'Autokarabana' saritu hura eta 'Zinegotzia' publikatu ostean, gaztetxoentzako bere lehenengo nobela ateratu du Fermin Etxegoienek: 'Urpekariak' (Erein argitaletxea). Askotan nobela iniziatikoak izan ohi dira halakoak, eta honek ere dezente du horretatik. Hau da istorioaren abiapuntua: oportretan daude eta aita bat eta bere 15 urteko semea Gironako herri batera doaz, L'Estartitera, urpekarizta bataioa egiteko. Itsas bidaia txoan, ama-alaba batzuk ezagutzen dituzte, eta bi gazteen artean begiradak gurutzatzen dira. Beraz, badago maitasun-istorio bat, baina nobelako hari nagusia, hala ere, aita-seme horien hartu-emanak dira.



URPEKARIAK FERMIN ETXEGOIEN

Generoa: Nobela.  
Argitaletxea: Erein.  
Orrialdeak: 151.  
Prezioa: 13 euro.

Nahikoa da hasierako orrialdeei begiratu bat ematea ikus-terako oraingo aita-semeen harremanak ez direla oso bareak izaten. Fermin Etxegoien irriti-estaria izan da hainbat urtez, eta hain zuzen ere lehenbiziko eszenan eztabaida bat ageri da, irratia dela-eta. Aita-semeak autoan doaz Katalunia aldera eta «Gaztea jartzeko!» esaten dio semeak ozenki. Aitak, berriz, ahots tentso eta apur bat nekatuaz: «Ezetz, orain nire txanda da. Bukatu dira horteradak, gutxienez bost minutuz!».

Kontakizuneko une batean, oso ez ohiko ez den erara jokatzen du Etxegoienek: ausartzen da hirugarren espazioa deritzaiena apurtzera; alegia, narratzaileak aitortzen bat egiten dio irakurleari. «Kartak mahai gainean jarri nahi izan ditut eta esaten dut: prest zaudete heldu batek idatzitako hau irakurtzera?», esan zuen atzoko aurkezpenean Etxegoienek.

Istorian zehar, talka moduko batzuk ageri dira. Aitaren erreferentzien eta semearen erreferentzien arteko talkak; hizkuntza talka ere bai, bai aita bai musikoa euskaldunak baitira, baina oso modu diferentean. Dena dela, zenbaitetan aitareganako sentimendu ulerbera agertzen du musikoa. Bestalde, «muturreko errerealismoz jokatuz», Katalunia independente batean kokatuta dago kontakizuna.

Erein etxeak bilera batean Etxegoieni egindako «enbido» baten ondorioa omen da idazlana. Idazleak «hordago» batekin erantzun omen du. «Eta hordagoak irabazteko dira», esan zuen.

## Maddiren abentura biago, orain sorginekin

**A.** Haurrentzako bi libururatu ditu Gaumin etxeak, nando Monillok idatzi eta libil ilustratzailearen irubaina edukiz oso desberdinak. Maddi eta euskal sorgin-tereko haurrentzat pentsatuta, 'Kai', 5-6koentzat. 'Maddi eta euskal sorgin-tereko haurrentzat pentsatuta', 'abenturak' izeneko biluruen alea da 'Maddi eta nank'. Maddi, txikia eta aibidaian dardueru, eta ia altsa-maltsa sartzen dira. atik hurbil, gertuko, eta an. Han, sorgina eza-Lance in-urre egin ere asmo ez ditzan. zleak ere ratsua is-



MADDI ETA EUSKAL SORGINAK FERNANDO MORILLO

Argitaletxea: Gaumin.  
Orrialdeak: 120.  
Prezioa: 13,50 euro.

torioan, Sarako erretore baitzen garai hartan. Maddi eta sorginak la-gunduko ditu euskal idazleak Lan-creren soldaduen aurka.

Bildumako lehenbiziko alea 2014ko udazkenean argitaratu zen: 'Maddi eta euskal piratak'.

'Kai, txakur bidaiaria' liburua, berriz, seguru asko izango denaren lehen alea da. Oraingoan, txakurraren aurkezpena egiten da. Kai mestizoa da. Batzuek artzain-txakurra izan behar duela adieraziko diote, ama hala zuelako, eta beste batzuek, berriz, ehiza-txakurra izan behar duela, aita ehiztaria zuelako. Baina Kai ez du garbi berak zer nahi duen.

Bi liburuetako ilustrazioak Mikel Mendibilek eginak dira. Batekoak eta besteok oso dira desberdinak. Besteak beste, akuarela, arkatza eta tinta erabili ditu.